

la perfumería

de Mercadona

2021EKO UDABERRIA

EDERTASUNA ZURE
AZALARENTZAT
EZAGUTU BERRITUKO
DUEN PLAN INTEGRALA

ONGIZATEAREN
ALITUAK
FITOTERAPIAREN
OSAGARRI NATURALAK

Sentitu
UDABERRIA

AURKIBIDEA

MAKILLAJEA

04 SENTITU UDABERRIA

Esentziara itzultzea, jatorrira, berriz konektatzera naturaren indarrarekin... Aurtengo udaberrian zure begiradak hitz egingo du, asko esango du zuri buruz, intimista eta eraldatzailea izango da, denboraldi honetan zure begirada izango baita zure *looka*.

AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO ZAINKETA

12 EDERTASUNA ZURE AZALARENTZAT

Ezagutu berrituko duen plan integrala. Zelulitis beldurgarriari arrastoan eusteko eta azala sakon hidratatzeko eta lehen eguzki-izpietatik babesteko unea da. Gure *beauty* erronkari heltzeko prest?

18 ALDATU AZALA

Imajinatu aurpegi leunagoa, gardenagoa eta argitsuagoa. Esfoliazioa urrats giltzarria da zure edertasun-errutinan.

20 STOP ORBANAK

Zure *beauty* helburua larruazal polita eta orbanik gabea erakustea bada, hemen dituzu orbanak prebenitzen edo kentzen laguntzeko jarraibideak eta tratamendua.

22 BIZARRA EZIN HOBETO KENTZEA

Gizonezkoen zainketa nagusia. Hasi aurretik, inguratu bizarra mozteko behar duzun materiala, eta kontuan hartu gure aholkuak.

MANIKURA

26 SHINNY RAINBOW

Aurtengo udaberrian, urrundu manikura klasikotik, aukeratu *glitter* akaberadun pastel-tonuak. Malba, arrosa, horia eta urdina. Shinny azazkal-esmalteen bilduma iritsi da, zu limurtzeko. Prest zaude?

ONGIZATEA

30 ELIKADURA-OSAGARRIAK

Zaintzaren alderdi guztien *booma* bizi dugu. Elikadura osasungarria, eguneroko ariketa fisikoa, lo ondo egitea, ibilaldiak naturan barrena, deskonektatzea berriro konektatzeko, eta fitoterapia, gure organismoari plus bat emateko.



Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.

Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.
© Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debeekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



Azalean



Base 3 en 1 oinarria (1 zk. beix argia), Micro Eyeliner-a, eta Paletako 02, 04 eta 06 itzalak. Bekainetarako Trio arkatza (01 zk.), Alas de Mariposa betile-maskara, Oh my Look! bildumakoa guztia. 09 zenbakiko ezpain-distira eta 50 zenbakiko distira handiko azazkal-esmaltea.

Hau darama modeloak:

Base 3 en 1 kolore-krema perfektionatzailea (1 zk. beix argia), Micro Eyeliner-a eta Paletako 02, 08 eta 01 itzalak begi-txokoan. Bekainetako Trio arkatza (01 zk.) eta Alas de Mariposa betile-maskara, Oh my Look! bildumakoa guztia. Kolore anitzeko koloretea, Creamy ezpainetako barra (05 zk.), eta distira handiko azazkal-esmaltea (54 zk.).

Sentitu UDABERRIA

Esentziara itzultzea, jatorrira, berriz konektatzera naturaren indarrarekin...

Aurtengo udaberrian zure begiradak hitz egingo du, asko esango du zuri buruz, intimista eta eraldatzailea izango da, denboraldi honetan begirada izango baita zure *looka*.

Ezagutu

OH MY LOOK!

la perfumería

Aurpegia eta begiak ardatz dituen makillaje-bilduma. Larruzal leun eta perfektua lortzea, begirada markatzea bekainak eta betileak landuz eta betazalei argia emanaz. Halakoxea da udaberri honetako bilduma izarra. Liluratu egingo zaitu!

Base 3 en 1
kolore-krema
perfekzionatzailea



01 zk. beix argia



02 zk. tarteko beixa

HIRU BATEAN

Imajinatu 3 1ean duen makillaje bat, erabil daitekeena aldi berean *primer* gisa, zuzentzaile gisa eta oinarri gisa. Oh my Look! bildumako krema koloredunak aurpegia perfekzionatzen du; haren balsamo-testura oso atsegina da aplikatzeko orduan, eta kolorea eta leuntasuna ematen dizkio azalari.

MAISU-UKITUA

Emitza hobea lortzeko, brotxa edo makillaje-belakiarekin erabiltzea gomendatzen da.



FORMAK GORDETZEA

Bekainak makillatu aurretik, garrantzitsua da nahi dugun forma markatzea. Aurpegian desorekarik ez sortzeko, mehe depilatzea saihestuko dugu. Egokiena da jatorrizko formatik kanpoko iletxoak pintza batzuen bidez kentzea, forma ahalik eta naturalena izan dadin.

Bekainetarako Trio arkatza



01 zk. argia

02 zk. iluna

Gogoratu

Trio arkatzak bekainak bete eta profilatzekoa, arkuak eta begi-txokoa argitzekoa eta orrazteko eskuila ditu. 3 1ean magiko bat, bekainak erabat diseinatzen.



Makillaje hau lortzeko...

Base 3 en 1 kolore-krema perfektionatzailea (1 zk. beix argia), Micro Eyeliner-a eta Paletako 01 eta 07 itzalak begi-txokoan. Bekainetako Trio arkatza (01 zk.) eta Alas de Mariposa betile-maskara, Oh my Look! bildumakoa guztia. Kolore anitzeko koloretea, Creamy ezpaintedako barra (12 zk.), eta distira handiko azazkal-esmaltea (39 zk.).

BEGIRADA ZIRRARAGARRIAK

Indartu edozein *look*etako betileak Alas de Mariposa efektuko bolumen-maskararekin; sustraitik puntetara, bolumena eta gorputza ematen die betileei, eta, aldi berean, altxatu eta zehaztu egiten ditu eta efektu panoramiko batez inguratzen.



**Alas de Mariposa
betile-maskara**

MAISU- UKITUA

Aplikatu betile-maskara beti sustraitik gorantz, eskuarekin sigi-saga txiki bat eginez. Are gehiago nabarmendu nahi badituzu, bigarren pasaldi bat eman diezaiekezu. Trikmailua? Tarte handirik ez uztea lehen pasaldirik bigarrenera, lehen geruza lehortu ez dadin bigarrena eman aurretik.



Micro Eyeliner-a



EDERTASUN-LERROA

Eyeliner-a erabiltzen hasi berria bazara, saia zaitetz gidatzat balioko dizuten eta lerro zuzena markatuko duten puntu txikiak egiten. Efektu nabarmenagoa nahi duzu? Delineatu begi-txokoraino. Zure delineatua marraztu ondoren, utzi lehortzen segundo batzuetan, betazala ez zikintzeko.





INTENTSITATE GOZOA

Oh my Look! Paletak akabera mateko begi-itzalak, satinatuak eta perlakarak ditu, baita tutoriala ere, begirada bizi eta erakargarri baterako hiru look erraz lortzeko.



Itzal-paleta

KOLORE IRAUNKORRA

Makillatzaile profesionalak zuzentzailea aplikatzen dute betazalean, itzalaren pigmentazioa biziagoa izan dadin, denbora gehiago iraun dezan eta homogeneoagoa izan dadin. Eraitza perfektua lortzeko, eman itzal ilunena betazal mugikorrean eta argiena betazal finkoan, eta lausotu bi tonuak pintzelarekin.



Makillaje hau lortzeko...

Primer, zuzentzaile eta/ edo makillaje gisa, erabili Base 3 en 1 kolore-krema perfektionatzailea (1 zk. beix argia), begirada delineatzeko Micro Eyeliner-a eta Paletako 02, 04 eta 06 itzalak.

Bekainetako Trio arkatza (01 zk.) eta Alas de Mariposa betile-maskara, Oh my Look! bildumakoa guztia. Kolore anitzeko koloretea; 09 zenbakiko distira ezpainenetan; eta, azazkaletan, distira handiko esmaltea (50 zk.).



GEHIEGIKERIARIK GABE

Oinarria aplikatzeko orduan, garrantzitsua da aurpegian produktu gehiegi ez zabaltzea, baizik eta tonua bateratu eta akatsak ñabartuko dituen geruza fin bat sortzea. Egokiena da produktua masailalboetan, kopetan, sudurrean eta kokotsean lausotzea, aurpegiaren erditik hasi eta kanporantz.

Hau darama modeloak:

Base 3 en 1 kolore-krema perfektionatzailea (1 zk. beix argia), Micro Eyeliner-a eta Paletako 01, 03 eta 05 itzalak begi-txokoan. Bekainetarako Trio arkatza (01 zk.), Alas de Mariposa betile-maskara, Oh my Look! bildumakoa guztia. Kolore anitzeko koloretea; 09 zenbakiko distira ezpainenetan; eta, azazkaletan, distira handiko esmaltea (50 zk.).





ÁGUA TERMAL & LAVANDA

Xaboi hidratatzailea eta naturala



Edertasuna *zure* AZALARENTZAT

Ezagutu berrituko duen plan integrala.
Zelulitis beldurgarriari arrastoan eusteko
eta azala sakon hidratatzeko eta lehen
eguzki-izpietatik babesteko unea da.
Gure beauty erronkari heltzeko prest?



ZELULITISAREN *aurkako aliatuak*



1 Udaberrian tenperatura epela izaten dugunez, eman ezazu **Efektu hotzeko zelulitisaren aurkako gela.** Sentsazio freskagarri atsegin bat nabarituko duzu haren aktiboek zure gorputzean lan egiten duten bitartean. Toxinak eta koipe-metaketak desagerrarazten lagunduko dizu, bai eta larruazala sendotzen ere. Egunero erabiltzea gomendatzen da, eta, horrekin batera, ariketa fisikoa egitea eta koipe eta kaloria gutxiko dieta egitea.



MASAJE ERREDUZITZAILEA

Aplikatzeko modua garrantzitsua da. Goranzko masaje zirkularrak areagotu egiten du ematen dituzun kremen aktiboen efektua.

Hobeto xurgatzeko eta drainatzeko, inguratu izterrak bi eskuekin, belaunetatik presioa eginez. Itxi ukabilak eta mugitu zirkuluak eginez, energiaz.



2 Zelulitisaren aurkako Cream Reduction-ek zelulitisa

prebenitzen du, eta laranja-azala hobetzen. *Centella asiatica* eta kafeina ditu, azalaren elastikotasuna hobetzen eta bolumena txikitzen laguntzen duten aktiboak biak. Eman goizean eta gauean, mugimendu zirkularrak eginez eta eremurik zailenetan ahalegin handixeagoa eginez. Masajeak gutxienez 10 minutu irautea komeni da emaitza onak lortzeko.



GOGOAN IZAN

Kontuan izan beharreko bi *tip*:

- ✓ Konstantzia, benetako edertasun-sekretua zelulitis beldurgarriari aurre egiteko eta gainditzeko.
- ✓ Eta hidratazioaren indarra, eguraldi ona iristen denean batez ere. Edan egunean 2 litro ur, gutxi gorabehera. Ohitura horrek zelulitisa murrizten laguntzen du, zirkulazioa indartuz eta organismoari hondakinak kanporatzen lagunduz.

Bikain HIDRATAZIOAN



1 Gorputzeko olioek azala elikatzen eta leuntzen dute, eta masaje atsegina ematen laguntzen dute edozein unetan azala suspertzeko eta indarberritzeko. Olio-kremak proposamen

erakargarria dira edertasun-olioak atsegin dituztenentzat. Gorputzeko crema koipetsua, masaje leun batekin emanda, olio bihurtzen da, eta azalak primeran xurgatzen du; eta are gehiago leuntzen eta elikatzen du. Hautatu gehien gustatzen zaizun usaina: **Fussion Cream & Oil, Oriental** edo **White Flowers**.



2 **Repair olioak** ildoak ateratzea prebenitzen du, eta lehendik ditugunak arintzen ditu, txori-arrosaren olioaren, arrosaren, hilerri-liliaren, kamamiliaren eta izpilikuaren konbinazio aberatsari esker. Orbainak arintzeko ere egokia da. Bilatu zure unea, eta oparitu zeure buruari bi eskuekin emandako masaje zirkular bat; azala erlaxatu eta indartzen du.



2 1ean ezpain-babesa eta 30 faktoreko eguzki-krema

Lehen IZPIAK

Iritsi da eguraldi ona. Hasteko, babestu azala eguzki dontsuaren eragin kaltegarrietatik, eta, eman kolorea nahi baduzu, eguzkitan etzan beharrik gabe. Beltzaran-kolore inbidigarria lor dezakezu arriskurik gabe.



Eguzkitako Solar gel gardena, 50+ faktorekoa



Gorputzerako Esne Autobeltzarantzailea



Berehalako Beltzarantze Efektuko Gorputz Gela



Autobronz toallatxoak

Aldatu azala

Imajinatu aurpegi leunagoa, gardenagoa eta argitsuagoa. Esfoliazioa urrats giltzarria da zure edertasun-errutinan.

Esfoliazioak eta *peeling*ak zelula hilen eta larruazaleko ezpurutasunen soberakina desagerrarazten laguntzen digute. Helburua: aurpegi leun, malgu eta gardena izatea.

Urteak igaro ahala, azalak berritzeko eta birsortzeko gaitasuna galtzen du. Emaita: azal zimurduna, argirik gabea, itzalia.

Hiru aukera proposatzen dizkizugu: lehenak (gizonezkoentzat) eta bigarrenak (emakumezkoentzat), biek, azalaren geruza azalekoenetan eragiten dute, hirugarrenak (*peeling* entzimatikoa) maila sakonagoetan.

1 MEN CARE VITAL ESFOLIATZAILEA

AZAL-MOTA
GUZTIETARAKO

► Zer da?

Gizonezkoen azalerako gel garbitzaile esfoliatzailea.

► Nola funtzionatzen du?

Poroak destoxifikatu eta garbitu, gehiegizko koipea murriztu, eta ezpurutasunak eta zelula hilak desagerrarazten ditu.

► Zer dauka?

Ikatz aktiboz eta arroka bolkanikoko mikrosferaz egina dago.



NOLA ERABILI


Astean behin edo bitan, ahal dela bizarra kendu aurretik, eman kantitate txiki bat larruazala heze dagoela, eta zabaldu masaje leun bat emanaz.



AZAL-MOTA
GUZTIETARAKO



AZAL-MOTA
GUZTIETARAKO



NOLA ERABILI

Astean behin eman larruazal garbi eta hezearen gainean, masaje leun bat eginez, eta begien ingurua saihestuz. Utzi lanean 5 minutuz, eta kendu ur epelarekin. Larruazal sentikorra baduzu, eman eta berehala kendu.

2 BUBBLE MASK & SCRUB ESFOLIATZAILE EFERBESZENTEA

► Zer da?

Aurpegiko maskara garbitzailea eta esfoliatzailea, larruazaleko koipe-hondarrak, zikinkeria, zelula hilak eta ezpurutasunak kentzen laguntzen duena.

► Nola funtzionatzen du?

Esfoliazio mekanikoa, maskararen pikorrak (perlita minerala) azalean igurtzita. Azala liso, homogeen eta argitsuago uzten du.

► Zer dauka?

Oxygen Carrier Complex izenekoa, azalera oxigenoa eta perlita minerala eramateko gai dena. Turkiako kristal bolkaniko hidratatua da perlita minerala.

NOLA ERABILI

Mugimendu zirkularrak eginez. Haren mikroburbuila oxigenatzaileek kilima egiten dute apar-geruza bat sortzen den bitartean. Desagertutakoan, kendu ur epelarekin.

3 PEELING ENTZIMATIKOA

► Zer da?


Peeling entzimatiakoak azalaren eta mantu lipidikoaren hezetasuna berrezartzen du, eta, bere eragin antioxidatzaileari esker, ingurumen-arriskuetatik babesten du.

► Nola funtzionatzen du?

Esfoliazio leun baina eraginkorra eragiten du, frutaren efektu alfa-hidroxiakidoak lagundutako ekintza entzimatiakoaren bidez. Poroak garbitzen ditu, eta azala finago uzten. Crema-testura du, pikorrik gabea, eta lozio bihurtzen da urarekin kontaktuan jartzean.

► Zer dauka?

Itsas alga berde eta gorrien estraktuekin eta kalitate handiko osagai botanikoekin aberastua dago.



STOP orbanak

Zure *beauty* helburua larruazal polita eta orbanik gabea erakustea bada, hemen dituzu orbanak prebenitzen edo kentzen laguntzeko jarraibideak eta tratamendua.

Larruazaleko orbanei aurre egitea borroka gogorra da, eta denbora, iraunkortasuna eta produktu egokiak erabiltzea eskatzen du. Metodoak oso oinarrizkoak dira: larruazalaren pigmentazioa murriztea, tonua bateratzea eta orban gehiago atera ez dadin prebenitzea.



Cream Argitzailea aurpegi osoan, lepoan eta bularrean eman daiteke, edo, bestela, zuzenean aurpegiko eta gorputzeko edozein ataletako orban baten gainean.

Deliplus-en Anti-Manchas lerroak honela jokatzen du:

***Prebenituz* 50+ faktoreko Cream Babeslea**

Krema honen iragazki eta aktiboek aurre egiten diete UVB-UVA izpiei, IR erradiazioari eta argi urdinari, orban gehiago ager ez daitezen. Orbanen prebentzioan eta tratamenduan, lehenengo araua da eguzkitik babesteko oso babes handia erabiltzea egunero (ez udan bakarrik), nahiz eta zure orbanak eguzkiaren ondorio ez izan.

***Tratatuz* Cream Argitzailea eta Serum Despimentatzailea**

Azala argitzen duten aktiboak dituzte, eta tarteko orbanak tratatzen dituzte, baita bizienak ere. Biek arintzen dituzte orbanak, argitasuna emanez eta larruazalaren tonua bateratuz.



Orbanak arintzeko eta prebenitzeko estrategiak

- 1 → Prebenitzeko: Egunero, goizetan, eman 50+ faktoreko Cream Babeslea.
- 2 → Tarteko orbanak tratatzeko: Egunez, eman 50+ faktoreko Cream Babeslea, eta gauetz, Cream Argitzailea edo Serum Despimentatzailea eta ohiko gaueko krema.
- 3 → Orban bizienak tratatzeko: Egunez, eman Serum Despimentatzailea eta 50+ faktoreko Cream Babeslea. Eta, gauetz, Serum Despimentatzailea eta Cream Argitzailea.





Bizarra EZIN HOBETO kentzea

Gizonezkoen zainketa nagusia.
Hasi aurretik, inguratu bizarra mozteko
behar duzun materiala, eta kontuan
hartu aholku hauek.

Lehenik eta behin, erabili beharreko tresnak hartu behar dira kontuan; bakoitzak bere teknika du, eta akabera desberdinak ematen dituzte. Hona hemen aitzur batzuk, berriz kargatzen direnak eta ez direnak, eta haien ezaugarri nagusiak.

BERRIZ KARGATU EZIN DIREN AITZURRAK



4
ALE

Active 3 eta Active 2

- ✓ 3 eta 2 xafla, hurrenez hurren.
- ✓ Buru baskulatzaila du, eta aurpegi-forma guztietara egokitzen da, bizarra hobeto kentzeko.
- ✓ E bitamina eta aloe vera dituen banda lubrifikatzailea, xafla azalean hobeto irristatzeko.
- ✓ Fluxu irekiko xafla (tarte handiagoa xaflen artean, errazago garbitzeko eta ilea katigatuta ez geratzeko).
- ✓ Gomazko kirten irristagaitza.
- ✓ **(Active 3)** Gomazko hegaleko barra babesgarria, ilea altxatzen laguntzeko eta gertuagotik mozteko.
- ✓ **(Active 2)** Barra babesgarri zabala.



6
ALE



10
ALE

Fix 2

- ✓ 2 xafla.
- ✓ Buru finkoa.
- ✓ E bitamina eta aloe vera dituen banda lubrifikatzailea, xafla azalean hobeto irristatzeko.
- ✓ Barra babesgarri zabala.
- ✓ Fluxu irekiko xafla (tarte handiagoa xaflen artean, errazago garbitzeko eta ilea katigatuta ez geratzeko).

ORDEZKOAK




Bi aho

Bizarginen erako xaflak. Estaldura kromatua; lehen pasaldetik nabaritzen da bizarra mozten duela. Bizarra eroso mozten laguntzen du, ertzaren formari esker.

BERRIZ KARGATZEKO AITZURRAK

Precision System 5

- ✓ 5 xafla.
- ✓ Buru baskulatzailea.
- ✓ E bitamina eta aloe vera dituen banda lubrifikatzailea, xafla azalean hobeto irristatzeko.
- ✓ Kargagailu aldagarria.
- ✓ Fluxu irekiko xafla (tarte handiagoa xaflen artean, errazago garbitzeko eta ilea katigatuta ez geratzeko).
- ✓ Doitasun-xafla atzealdean, toki zailtara iristeko, hala nola belarri ondora edo sudur azpira.
- ✓ Babes-barra atzeko xaflan.
- ✓ Kirten irristagaitza eta ergonomikoki diseinatua.



BIZARRA MOZTEKO OSAGARRIAK

AURRETIK...

Bizarra mozteko gela

Formula berezia du, xafla errazago irristatzeko eta, hala, bizarra leun eta azala zainduz mozteko. Aloe vera du, azala leuntzeko eta goxatzeko, eta alantoina, azala ez narritatzeko. Bi tamaina: 200 eta 75 ml.

NOLA ERABILI

Busti azala ur epelarekin, eta zabaldu gela masaje leun bat emanaz, apar ugari sortu arte. Bizarra kendu ondoren, kendu hondarrak urarekin.



ONDOREN...

Bálamo after shave-a

Kamamilaren eta E bitaminaren estraktu ekologikoa du, eta bizarra kendu ondoren ematekoa da, azala leuntzeko eta hidratatzeko.

BIZARRA KENTZEKO TIPAK

- ✓ Azala ondo busti bizarra egin aurretik, bizarra biguntzeko eta poroak irekitzeko.
- ✓ Ez kolpatu xaflak konketaren kontra, ahoa honda baitaiteke. Egokiena da txorrotaren azpian jartzea eta uraren presioarekin berarekin garbitzea, xaflen artean ilea trabatu ez dadin.
- ✓ Bizarra egunero edo egun biz behin kentzen baduzu, bost xaflako aitzur bat erabiltzea gomendatzen dizugu. Hiru egunez behin eta gutxiagotan kentzen baduzu, egokiena 3 xaflakoa edo gutxiagokoa da.



MY MOMENT

fragrance

Fintasuna zure azalean



la perfumería

SHINNY rainbow

Aurtengo udaberrian
urrundu manikura klasikotik,
aukeratu *glitter* akaberadun pastel-tonuak.
Malba, arrosa, horia eta urdina.
Shinny bilduma iritsi da, zu limurtzeko.
Prest zaude?



MALBA
distiraduna
973 zk. azazkal-esmaltea





ZERUKO *urdina*
972 zk. azazkal-esmaltea



HORI
beroa
970 zk. azazkal-esmaltea



ARROSA
xarmaduna
971 zk. azazkal-esmaltea



ILERAKO OSAGARRIAK

Eman kolorea zure adatsari, eta aukeratu diadema eta motots-goma hauen artean udaberrian gehien gustatzen zaizun *looka* erakusteko.

Ezingo zara haiek gabe bizi!



ONGIZATEA

Elikadura-osagarriak

Zaintzaren alderdi guztien *booma* bizi dugu. Elikadura osasungarria, eguneroko ariketa fisikoa, lo ondo egitea, ibilaldiak naturan barrena, deskonektatzea berriro konektatzeko, eta fitoterapia, gure organismoari plus bat emateko.





COLESTEROL

Kolesterol-maila normalari eusten laguntzen du.

Osagaiak

- ✓ **Berberis aristata** eta **arroz gorriaren legamia**; odoleko kolesterola erregulatzen laguntzen dute.
- ✓ **Olibondoa**; antioxidatzailea da.
- ✓ **Astalikardua**; aliatu ezin hobea da gibela zaintzeko, hots, odoleko gantzak garbitzeaz eta erregulatzeaz arduratzen den organoa zaintzeko.

NOLA ERABILI

Kapsula bat egunean (gauetz), kolesterolari aurre egiteko beste sendagairik hartzen ez bada (medikuari galdetu).

MENOPAUSIA

Menopausia aldiaren dauden emakumeentzat, beroaldiak eta kontzentratzeko eta/edo lo hartzeko zailtasunak badituzte.

Osagaiak

- ✓ **Salbia**; ongizatea ematen du menopausian, gauean gutxiago izerditzen laguntzen baitu.
- ✓ **B6 bitamina**; jarduera hormonalaren erregulazioa laguntzen du.
- ✓ **Soja-isoflaponak**; asko erabiltzen dira emakumeen etapa honetan hormonak orekatzeko.
- ✓ **Garraiska**; nerbio-sistemaren erregulazio normalari laguntzen dion landarea da.

NOLA ERABILI

Egunean bi kapsula hartu tarte jarraitu batean (bata gosarian eta bestea afarian).





QUEMAGRASAS

Osagarri perfektua dieta batean, pisua galtzen laguntzeko.

Osagaiak

- ✓ **Coleus forskohlii**; gantzen metabolismoa erregulatu eta masa muskularra sortzen laguntzen du, gorputz-pisua kontrolatzeko faktore lagungarriak biak.
- ✓ **IGOB 131**; mango afrikarraren estraktua da, eta, gainerako osagaiekin sinergian, pisua kontrolatzen laguntzen du.

NOLA ERABILI

Hartu kapsula bat bazkarian eta beste bat afarian. Elikadura-osagarri horren efektuak areagotzeko, ezinbestekoa da dieta orekatua egitea eta energia-gastua hartzen dugun kaloria-kantitatea baino handiagoa izatea (ariketa fisikoari esker).

KAPTOGRAS

Pisua kontrolatzeko, garrantzitsua da gehiegikeriazko egunak otordu arinekin konpentsatzen jakitea. Otordu oparo baten aurretik hartzea gomendatzen da, koipeak eta karbohidratoak ez xurgatzeko.

Osagaiak

- ✓ **Norvegiako laminaria** eta **Txanpiñoia**; otorduetan irensten ditugun kalorien xurgapena kontrolatzen laguntzen dute.
- ✓ **Mahats-haziek**; argaltzeko dietetan gorputz-pisuari eusten laguntzen dute.

NOLA ERABILI

Hartu kapsula bat otordu oparo bat egin baino ordu-erdi lehenago, edo osagarri gisa, dieta batean pisua azkarrago galtzeko. Argaltzeko garaian, **Quemagrasas-ekin** batera har daiteke.





SACIANTE

Ezin hobea etengabe gosea eta mokaduak jateko gogoia sentitzen dutenentzat.

Osagaiak

- ✓ **Algarroboa;** asetasun-sentsazioa ematen du, eta pisua kontrolatzen laguntzen du.
- ✓ **Glukomanoa;** zuntz hau puztu egiten da urarekiko kontaktuan, eta betetze-efektua eragiten du.
- ✓ **Kromoa;** odoleko glukosa-mailari eusten laguntzen dio.

NOLA ERABILI

Otordu nagusia baino ordu-erdi lehenago, bete edalontzi bat urez, disolbatu *stick* bat han, eta edan; bete berriz edalontzia, eta edan, edukia urdailera iristen dela ziurtatzeko.



Hau izango da zure mantra:
Ondo lo egin, dieta orekatua egin
eta ariketa fisikoa egin.

Sortu ingurune
osasungarri bat; badakizu...
mens sana in corpore sano.



JALEA REAL

(14 urtetik gorakoentzat)

Propietate elikagarri handiko substantzia honek nekeari eta akidurari aurre egiten laguntzen du. Ez du azukre gehigarrik.

Osagaiak

- ✓ **Propolia;** erregina-jelea bezala, erleek egiten dute substantzia hau ere, eta propietate antiseptikoak ditu.
- ✓ **C bitamina;** immunitate-sistemak ondo funtziona dezan laguntzen du.

NOLA ERABILI

Egunean *stick* bat hartu, ahal dela gosarian. Bihotzerrea izateko joera dutenek gosaldutik ondoren hartzea komeni da; inoiz ez baraurik.



SOL

Larruzala eguzkitarako prestatzen du, eta larruzalaren zahartzearen zantzuak prebenitzen laguntzen du (zimurrak, lehortasuna eta orbanak).

Osagaiak

- ✓ **Luteina eta Omega 3;** antioxidatzaileak dira.
- ✓ **Beta-karotenoa;** A bitaminaren sorkuntza estimulatzen du, zeina funtsezkoa baita gure azalaren osasuna zaintzeko.
- ✓ **Kobrea;** pigmentazio homogeenagoa lortzen laguntzen du.
- ✓ **C bitamina;** kolagenoa sortzen laguntzen du, zeina funtsezkoa baita larruzalak funtziona dezan.
- ✓ **E bitamina;** zelulak oxidazioaren kaltetik babesten laguntzen du.

NOLA ERABILI

Hartu kapsula bat goizean. Nahi diren efektuak lortzeko, hasi hartzen eguzkitan jarri baino 3 hilabete lehenago eta eguzkia hartzen duzun bitartean. Ez du balio krema babesleen ordezkotzat gisa.

OH MY
LOOK!
deliplus
COLOR





Eau de parfum

BLUE SHINE
FOR HER

Eau de parfum

BLUE SHINE
FOR HER

Eau de parfum

BLUE SHINE
FOR HER

MURGILDU MEDITERRANEOAREN ESENTZIAN